

# Kandinskyren tradizioa

Ramon Saizarbitoria



## **Kandinskyren tradizioa**

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahituezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Saila eta azalaren diseinua:  
Iturri

Maketazioa:  
Erein

© Ramon Saizarbitoria

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-107-8

L. G.: SS-1310/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107  
20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

# Kandinskyren tradizioa

*Ramon Saizarbitoria*

erein

Behin batean, amak liburutegitik jaso ohi zituen liburuen artean, “Kandinsky eta ni” izenburukoa atzeman nuen, pintorearen alargunak idatziriko memoria liburu bat, zeinean oso anekdota bitxia ageri den. Dirudienez, antzinako ohitura bati jarraiki, tsarren Errusian, Urtezahar eta urteberri arteko gauean, neska gazteak kalera ateratzen ziren aurkitzen zuten lehendabiziko gizonari izena galdetzeko, ustea baitzen hura bezala deitzen zen batekin ezkonduko zirela.

Urtezahar-gau batean, Nina Kandinsky ere, gainerrako neska gazteak bezala, kalera atera zen eta aurkitu zuen aurreneko gizonak, bere esanetan gazte guztiz atsegin batek, izena Wassily zuela esan omen zion. Egundoko desilusia izan bide zuen, bere senarrarentzat benetan atsegin zitzaiokeen izena errusiar tradizio zaharreko Gregor baitzen. Baina handik denbora batera, ordea, 1916an, Wassily Kandinsky margolari famatua ezagutu ondoren, berarekin ezkondu eta zoriontsu bizi izan omen zen urte askoan.

Anekdotak irakurri nuenean abenduaren lehendabiziko egunetan geunden eta, auskalo zergatik, horrelako eraldiak izaten baititugu, zera sartu zitzaidan buruan, Errusian balekoa zenak balio behar zuela hemen, eta erabaki nuen neuk ere, Kandinskyren emazteak bezala, saioa egin behar nuela.

Gogoan dut, senargaiaren izena jakiteko irrikan, luzea egin zitzaidala Gabon Zahar arteko itxaronaldia. Gustatu, izen bezala, Aitor gustatzen zitzaidan. Neure buruari “Aitorren emaztea” esaten nionean, atsegina gertatzen zitzaidan. Izen biribila iruditu izan zait beti, indarra du, maskulinoa da erabat eta guztiz gurea. Baina ez zitzaidan gurea delako gustatzen, “aitonen seme” eta zera mitologiko horiengatik alegia, ezta senargaitzat, preseski, mutil euskaldun bat behar nuelako, izan ere, atsegina, sentibera eta ederra izanez gero, orden horretan zehazki, edozein mutil gustatuko baitzitzaidakeen, frantziarra edo, ez dakit, panamarra den begiratu gabe, ez naizelako arrazista inondik ere, baina, baldintza berdinetan, bertakoa edo atzeritarra izan, nik Aitor bat nahiago, izen horrekin, noski, euskalduna egokitzea errazago den arren.

Bueno, kontua da Aitor atsegin zitzaidala eta amets egiten nuela, noizbait, dantza lekuren batean edo margo erakustaldi batean maizago, margo erakustaldietara askotan joaten naizelako, mutil gazte eder bat, sentibera eta dibertigarria, dibertigarria batez ere, ezagutzen nuela eta, begietara so, “Aitor naiz” esaten zidala.

Oso erromantikoa naiz. Askotan, erromantiko izatea eta txepela izatea nahastu egiten dira, baina ez da inondik ere nire kasua; esan nahi dut ez naizela batere itxia, alderantziz, aurrerakoitzat dut neure burua. Hala eta guztiz ere, aitortu beharrean nago beti nahi izan dudala birjintasuna nire ametsetako Aitor hori azalduko zitzaidan arte gorde, ez ordea arrazoi moralak edo etikoak direla medio, baizik eta bizitza osorako lotuko nintzaion gizonarekin deskubritu nahi nuelako sexua. Badakit nire ikuspegi erromantiko hori antigoalekotzat jo daitekeela baina, edozein kasutan ere, ez diot garrantzi gehiegirik eman izan sexuari; esan nahi dut ez dudala handietsi eta, birjintasuna gordetzen aparteko lanik izan ez dudanez, erabakita nengoela betirako gizona izango nuenari eskaintzera; izan ere nahi dutena esango baitute baina, beroiek bai, garrantzia ematen diote horri.

“Bizitza osoa egon natzaizu itxaroten, Aitor, eta orain zuretzat naiz” esateko modua zen. Baina aitortzen dut, funtsean, izan daitekeela sexua ez zitzaidala besteei bezain deigarria gertatzen ere. Sarritan pentsatu ohi dut hori eta konplexuduna ere sentitu izan naiz nire lagun gehienak egina zutelako eta askatasun handiaz mintzo zirelako beren harreman sexualez eta, aitortu ere egiten zuten, inongo lotsarik gabe, halakorekin edo bestelakorekin oheratu nahiko zuketela, eta barre egiten zidaten birjintasuna betirako gizona iritziko nionarentzat gorde nahi nuela aitortzen nienean.

Utzi zioten barre egiteari, ordea, halako batean, haien adar jotzeaz aspertuta eta txepeltzat hartzen nindutelako leporaino eginda –hemen oilo baten modura jotzen ez duena inozoa dela baitirudi– erabaki nuen neroni ere Manuel izeneko mutil batekin ibiltzen nintzela esatea, eta jadanik, harremanak izanak genituela. Ez dakit zergatik irudizko mutilari Manuel jarri nion izena; beharbada, Aitorren denik eta kontrakoena izanik, guztiz itsusia neritzolako –dударик gabe arrunt xamarra bada– eta, zentzu horretan, gutxiago inporta zitzaidalako maltzurkerietarako erabiltzea.

Gainera, Manuel oso izen egokia da Errioxako mutil batentzat, –Tomas ere bai, eta Gregorio areago beharbada–, eta balizko amoranteak derrigorrez errioxarra izan behar zuen nire gurasoek etxea dutelako Errioxa arabarreko Bastidan, non betidanik oporrak pasa izan ditugun, eta astebururen bat ere bai, aita batez ere gero eta sarriago joan ohi da klima komeni omen zaiolako eta, horrela, Manuel Bastidan ezagutu nuela eta bertakoa zela esatea sinesgarria izateaz gainera, era hartara errazago justifikatu nezakeen lagunei aurkeztu ez izana.

Manueli buruz hitz egiten hasi nintzaienean, ez nuen bere pertsonaren profil bat buruan, esan nahi dut aldeztu aurretik ez nuela bere ezaugarriak ongi taxutuak izango zituen pertsonai bat osatzeko lanik hartu; izen bat bilatzea baino askoz gehiago ez nuen egin. Gerora joango nintzen pertsonaia osatzen, hitz egin ahala, batez



ere Rosak egiten zizkidan galderak hartara behartzen ninduten neurrian, zehaztasunak emanez, detaileak gehituz eta, sinesgaitza dirudien arren, ez nuen inoiz izan kontraesanean jausteko kezkarik, ziur asko oso ongi nekielako, funtsean, nolakoa izan beharko zukeen ena-moratuko ninduen mutilak.

Lehendabizikoz hitz egin nien egunean –“Bastidako mutil batekin nabil” bota nien eta ahoa bete hortz geratu ziren– izena jakinarazteaz gainera, karrera bat egiten ari zela esan nien, bukatzeaz jada, mutil jantzi bat desiratu izan dudalako beti, eta asteburuetan, oporretan bezala, zerbaitetan lan egiten zuela, unibertsitarioren inguruko film amerikarretan asko ikusten dena baita eta betidanik gustatu izan zait joera arduratsu hori. Beraz, kontatu ahala joan nintzen gure historia asmatzen, detaile batek bestera eramaten ninduela.

Errioxan, joera handia dute auzokoen artean jaiak antolatzeko eta, oso zalea ez naizen arren, behin, haietako batera joana nintzela, bera inguratu zitzaidan eta lehendabiziko momentutik iritzi nion atsegina, gozoa, delikatua, hori behar bainuen nik, mutil atsegin, gozo eta delikatu bat eta nire zaletasunez galdetzen dit eta nik, noski, arte ederrak aipatzen dizkiot, Kandinsky atsegin zaidala batez ere, arte abstraktuaren sortzailea, eta oso pozik jartzen da Kandinskyzale amorratua delako bera ere. Eta orduan galdetzen dit ea badakidan nola asmatu zuen Kandinskyk abstrakzioa eta nik ezetz esaten

diot, noski. Aitak erregalaturiko “Artea Atik Zetara” Entziklopedian irakurritako gauzak ziren Rosari tutik ere interesatzen ez zitzaizkionak baina ez zuen beste erre-medorik entzutea baino, kontu entretenigarriagoetara bideratuko nintzen esperoan. Manuelek, beraz, nola Kandinsky miopea zen kontatzen dit eta behin, tailerre-an zegoela, koadro bat ikusi zuela, figura identifikagarri-rik gabea, kolore hutsezko gunez osatua, baina oso ederra iruditu zitzaiona. Hurbildu zitzaionean bere koadroetako bat azpikoz gora jarria ezagutu zuelarik, ulertu zuen bere pinturak ez zuela figuraren beharrik, eta horrela hasi zen arte abstraktua. Beraz, “horrela hasi zen guztia” esaten dit Manuelek eta nik oso historia polita dela aitortzen diot eta berak, orduan, “orain hasten da beharbada gure historia”.

–Zer gehiago? –jakin nahi izaten zuen Rosak– eta gero zer?

Biharamunean liburu bat bidali zidala esan nion; Madame Bovary. Literaturaz ere hitz egin baikenuen. Esaten zidan nobela klasikoak denbora pasako asko baino errazago irakurtzen direla, hori baita neure esperientzia; Ana Karenina, esaterako, amaitzeko penaz irakurri bainuen, eta beste asko. Ea Madame Bovary irakurri al dudan galdetzen dit eta nik ezetz; egia da ez dudala irakurri baina ezagutzen dut argumentua eta esaten dit lehendabiziko nobela modernoa dela eta Flaubert bera izan zela Emma Bovary-ren eredia –“Madame Bovary

c'est moi" esan omen zuen— ikastolan ikasia bainuen hori guztia. Beraz, biharamunean, oso pakete dotorean bildua, liburuak bidali zidan lehendabiziko orrian eskaintza bat zuena —“Mireni mirespenez” bururatu zitzaidan—, eta lau orriko hirusta.

Asko pentsatu gabe asmatutakoa bazen ere, Rosari eskaintza gustatu zitzaion, baina lau orriko hirustari buruz esan zidan ezen, hartarako, lau hosto izateko propio, genetikoki manipulaturik sortutakoak saltzen zitezela eta suertea ematearen aldetik baliogabeak zirela. Nik uste arrabiak hartzen zuela Manuel bezalako mutil sentibera eta adeitsu batekin ibiltzen nintzelako.

Asmakizuna primeran etorri zitzaidan, laguneri ziriak saihesteaz gain, neure buruarekiko estimua gehitzeko eta, bide batez, asteburu batzuetan haiekin ateratzeko gogorik gabe nengoenean, aitzakia nuelako Bastidara Manuel ikustera nindoala esan eta etxean geratzeko arte liburuak ikusmiratzen eta akuarelaz margotzen, hori baita gehien atsegin zaidana.

Kandinskyren estilora margotzen dut, oso pintura argia eta alaia, zeinetan gorria eta urdina izan ohi diren nagusi —eta horia— eta hauetako edozein egunetan oliora pasako naiz beldur pixka bat ematen badit ere, hori ur sakonetan sartzea baita.

Ustez kanpora alde egiten nuen asteburu horien ondoren, lagunek galderak egiten zizkidaten ea Manuelekin zer egiten nuen aterarazi nahian; noraino

iristen ginen jakin nahi izaten zuten, non eta nola ferekatzen ninduen, xehetasun guztiakin, nik galderak saihestu nahi izaten nituen arren, ez lotsaz nintzelako bakarrik, baizik eta margotzetik kanpo ez naizelako irudimen handikoa ere. Baina Rosak, batez ere, xehetasunak nahi izaten zituen –ñabardurak ferekatzea gogoko zitzaiola zuen leloa– eta ez zidan galdekizunekin bakean lagatzen.

Behin, maitasuna nola egiten genuen kontatzeko eskean, bereziki temati jarri zen. Nik intimitate eskubi-dea aldarrikatuz uko egiten nion arren, berak ez zuen etsi nahi eta azkenerako eskatu zidan, besterik izango ez bazen ere, kontatzeko gutxienez maitasuna egiteko nola biluzten ginen –“esadan hori behintzat, besterik ez bada ere” erregutzen zidan– hain sutsu galdetu ere azkenerako bururatu baitzitzaidan tranparen bat izan zitekeela pentsatzea, ez bainekien zirkunstantzia horretan jokabide jakineko bat ote zegoen biluzteko, usadioren bat, alegia, eta, esan bezala, itaunketari ahal izan nuen moduan ihes egiten saiatu nintzen arren, azkenerako, kokoteraino eginda, erabaki nuen bakoitza bere aldetik biluztu ginela esatea, nork bere burua biluztu eta, besterik gabe, ohean sartu ginela.

Iruditu zitzaidan modurik errazena zela, naturalena, ez dakit nola esan, konplikaziorik gabea, zuzenena, sanoenena. Nolanahi ere, egoera hartan neronek egingo nukeena zela iruditu zitzaidan. Ez ditut gogoko filmetako eszena